



Txapelketako 'birgeria' bat, iazko proban, Fagollagan. Zubia pasa eta errio ondoan gora, presa parean.

Munduko 'trialsin' onenetako batzuk Fagollagan probatuko dira, bihar

■ Gipuzkoako Txapelketako proba jokatu da Fagollagan ■ Alberto Gomez lezotarra eta Iker Lezeta donostiarra munduko 5 onenen artean daude ■ Proba goizeko 10:00etan hasiko da.

BIZIKLETAREKIN *marabilak* egiten ikusi nahi duenak igandean du aukera ederra, Fagollagako presa parean. Proba, berez, Gipuzkoako txapelketako ekitaldia da.

Trialsin pilotoei egin behar du dutena da 5 zonatako zirkuito bati 3 buelta eman. Irabazi, berriz, zeinek hanka lurrera gutxiena bota haretzek irabazten du.

Proba emakumezko eta

gizonezkoentzat da. Profesionalak ez ezik gazteen kategorietakoak ere aterako dira Fagollagan.

Munduko txapeldunordea
Fagollagako zirkuitoan 30 *txirrindulari* bilduko dira igandean eta tartean perla batzuk ere bai. Antolatzaileek Kronikari adierazi diotenez, "Fagollagan ikusiko ditugun batzuk munduko trialsin one-

nen maila dute" eta datuek ere horixe erakusten dute: Alberto Gomez munduko txapeldunordea da *Expert* kategorian eta Iker Lezeta ere 5 aurrenekotan sartu zen.

Xemar Iriondo
Gipuzkoako *Trialsin* txapelketan Hernanik ere badu ordezkartza, eta ona datorrena gainera. Xemar Iriondo gaztetxoak benjamin kategori-

an ateratzen da. Bi proba egin dituzte eta sailkapenean hirugarren dijota.

Umeentzat bizikletak
Fagollagan konpetizioa ez ezik umeak jolasteko zirkuito ere egongo da. Bizikletarik ez duten umeentzat, berriz, antolatzaileek berak jarriko dituzte batzuk eta nahi duenak gozatzeko aukera izango du. □

ZUHAITZ EGUNA

Gaztetxoak arbola aldatzen gaur

JOXE Legarreta Zuhaitz Eguna da gaur eta bihar. Aurten, 800 arbola sartuko dituzte Aparrainen; gaur umeak arituko dira lanean. Gehiena hemengo haritza sartuko dute, baina, norteko haritza, pagoa, urkia eta gaztaina ere bai.

Autobusa goizeko 09:00etan aterako da Atsegindegitik.

Bihar helduen txanda, eta Aparrainera oinez joateko plana dago. 08:00etan Gudarien plazan.

Manifestaziora joateko deitu du Batasunak

BATASUNAK manifestazioa deitu du gaurko Donostian. Alderdi politiko horren ustetan, frankismoaren garaiko "estado de escepción" egoerarekin konparatzeko garaiak bizi dira Euskal Herrian eta errepresio horretan pauso haundiak eman dira azkenaldian. Horrela ulertu behar da Segi eta Askatasuna ilegalizatu izana, Hernaniko Batasunaren prentsa oharraren arabera.

Hori guztiak salatzen ekimenak egiten ari dira: horietako bat izango da gaur Donostian egingo den manifestazioa. Arratsaldeko 17:30etan aterako da Antiguako zubitik.

Bestalde, protesta ekimen horietako batean hernaniar bat gose greba mugagabea egiten ari da Iruñan. Dagoeneko 15 egun darra-mazki. Ondo dago, baina, ahul. □

Antziolako bidea itxita gaur, 08:00-11:00

Kotxeak Sagastialdetik eta kamioiak bariantetik barrena ibili. □

ERREMONTA

Binakako finala, gaur Galarretan

■ Altuna I-Eizagirre/Zeberio II-Iriartek jokatu dute ■ 17:00etan (ETB).



Antziola-Motor ZERBITZU OFIZIALA

HILABETE HONETAN 500 - 1200 EURO ARTEKO DTOA
SEGUN ETA ZEIN MODELOETAN.

Zatoz, eta zerorrek ikusi gure eskaintzak.

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TFNOA. 943 55 57 72
Ordutegia: ASTEAN ZEHAR 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATEAN 10-13



URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

Matrikula: *otsailaren 18etik martxoaren 1a bitartean.*

Non: Gay Mur eraikina, Laramendi 18

Ordutegia:

9:00-12:30 / 14:30-17:00
Telf: 943 55 04 72

GOIKO LASTOLA

SAGARDOTEGIA

Ereñotzu auzoa
HERNANI
Tel. 943 55 32 72

Eguerditan irekita. Bakailu kaxuelak enkarguz.

ESKANTZAK

kotxerako osagarriak
antena
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soproteak

Xenon Computer

MoviStar Activa

Mobiletan eskaintza:
MOTOROLA 191
PACK ACTIVA
191 euro
(30,05 deietan).
Kontratuarekin
149,20 euro.

Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, 943 33 26 00

FUTBOLA -Gorengo maila-

Bergara-Hernani, ametsetan hasteko puntu bila

ZURIBERDEEK Bergararen kontra dute gaur Ligako partidua. Hernani oso denboraldi ona egiten ari da eta hor daude emaitzak: sailkapenean 6garren 41 punturekin, liderretik 7 puntura eta bigarren postetik 4ra. Oraindik ia liga erdia gelditzen da eta 7 puntu asko dira; bai, baina, ia denen buruan amets bera dabil.

Bergara 11garren dijoa 36 punturekin eta Hernanik irabazi ezker 8 puntuko tartea hartuko dio. Partidua 16:30-etan hasiko da.

Bestalde, goiko ekipo batzuk elkarren kontra jokatzeko dute eta sailkapenean aldaketak etorri litezke. □



Lehenengo bueltan, Hernanik 1-2 galdu zuen Bergararen kontra.

Asteburuko partidua	
Bergara-Hernani	
Zarautz-Trinxepe	Berio-Irun
Mundarro-Tolosa	Lagun Onak-Elgoibar
Arexabaleta-Mutriku	Beti Ona-Urola
Alofiamendi-Ordizia	Hondarribia-Oiartzun
Pasaia-GureTxokoa	

Antzolan hasi dira rotonda egiten

Sagastialdetik Latsunbe Berrira egitekoa duten bidea eta Zinkoeneatik 'Cuesta de la Muerte'ra dijoana elkartzen diren puntuan dijoa rotonda.

ANTZOLAN hasi dituzte rotonda egiteko lanak. Rotonda berriaren helburua da Latsunbe Berrira, Sagastialdera eta Cuesta de la Muertara dijoan trafikoa bideratzea.



Bide ondoko terrenoari jan diote pusketa rotonda egiteko.

Bidea Latsunbe Berrira

Oraindik plenoak onartzeko du, baina, pentsatua dago Antzolatik Latsunbe Berriko rotondara bidea egitea. Aurrera begira, udalak Zinkoeneara beharrean Cuesta de la Muertara bideratu nahi du trafikoa astuna. □

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK-

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	PELOTA	PELOTARIAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Bergara-Hernani	Agorrosin	Gaur, 16:30	E.H. Txap			
Emakumezkoa	Zumaiako-Hernani	Aita Mari	Bihar, 11:30	Paleta goma jub.	Aufiamendi 2 / Burutaran-Valero	Auritzberri	Gaur, 17:00
Erregionala	Hernani-Euskalduna	Zubipe	Bihar, 17:00	Paleta goma jub.	Aufiamendi 1/ Hoz-Lujanbio	Auritzberri	Gaur, 17:30
Gazteak. L. Naz.	Hernani-Amorebieta	Zubipe	Bihar, 16:30	Eskuz binaka jub.	Alvarez-S. Sebas./Zazpituri	Kiroldesia	Bihar, 11:15
Gazteak Ohor.	Hernani-Hondarribia	Zubipe	Bihar, 11:30	Paleta goma	Luiando/Manzidor-Martinez	Luiando	Bihar, 11:45
Kadeteak ohor.	Hernani-Ondarroa	Zubipe	Gaur, 10:00	Erremontea	Agilar-Juaristi-Illunpe	Galarreta	Gaur, 09:00
Kadeteak 2gar.	Tolosa-Hernani	Usabal	Gaur, 10:30	Gipuz. Txap			
Haurren liga	Lengokoak-Hernani	Herrera	Gaur, 11:30	Eskuz binaka	Gazteleku/Ezeiza-Grajai	Andoain	Gaur, 17:45
WATERPOLOA				Eskuz binaka	Antiguo/Zabala-Alzpitarte	Antiguo	Bihar, 10:00
Gipuzkoako liga	Izarraitz-Hernani B.	Azpeitia	Gaur, 14:00	Trinkete kad.	Apaolaza/Ramos	Donostia	Bihar, 11:00
Gipuzkoako liga	Eibar-Hernani A	Eibar	Gaur, 19:30	Trinkete kad.	Gorrotxategi/Ramuntxo	Donostia	Ondoren
Gipuzkoako liga	Hernani B-Easo	Kiroldesia	Bihar, 13:00	Trinkete jub.	Elizalde/Beharzana	Donostia	Ondoren
ERRUGBIA				Udaberri Txap			
Senior. 1 maila	Atletiko SS-Hernani	Bidebieta	Bihar, 12:00	Paia laruz.	Landare/Lizeaga-Lujanbio	Errenteri	Gaur, 11:00
Jubenila. Gi. Lig.	Zarautz-Hernani	Zarautz	Gaur, 16:30	Eskuz kad.	Arexabaleta/Huizi-Zurutza	Arexab.	Gaur, 17:30
Kadetea. Euskal	Hernani-Eibar	Landare	Gaur, 11:00	Eskuz jub.	Arexabaleta/Arrieta-Elizalde	Arexab.	Ondoren
ESKUBALOA				BOLEBOLA			
Euskadiko L.	Zarautz-Hernani	Zarautz	Bihar, 12:00	Euskal Liga	Astillero-Hernani	Santander	Gaur, 20:00

HITZ BITAN



Karmele Muxika oiartzuarrak hartu du Arrigoain jatetxea.

✓ OSTALARITZA

Arrigoain jatetxea, zabalik berriz. Lau Bidietatik goira igota, harrobi azpian dagoen jatetxea, irikita dago. Jabe berria dauka orain. Hamaikak aldean irikitzen dute eta afal ondoan itxi. Aste osoan dago irikita, astelehen eta astearte goiza salbu. Menuak, menu bereziak (asteburueta), *plater konbinatuak*, karta...

✓ IRRATI ASTEA

Molotoff Plaza Berrian. Molotoff Irratiak programa berezia egingo du gaur 12:00etatik 14:00etara eta Plaza Berrian emitituko du. Programazio berezi honen barruan elkarrizketak egingo ditu: irratia sortu zutenei, herriko zenbait pertsoneri eta abar. Irrati Asteko hitzaldi eta elkarrizketa zatiak ere bota-ko ditu Molotoffek. Gauean barrikotea egingo dute. Afaria 21:00etan. Afalondoan *Kabareta* eta *Haritz Sound Sistem*.

✓ ELUR-TXORI

Urteurreneko afaria gaur. Elur-Txori elkarteak urteurreneko afaria du gaur. Afal ondorenean mus txapelketako sariak banatuko dira.

✓ ZINEA BITERIN

'A mi madre le gustan las mujeres'. 19:00;22:30.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak:	943 550093
▶Udaltzaingoa:	943 333288
▶DYA:	943 464622
▶Autobusak	943 556662
▶Anbulatorioa:	943 557750
▶Jokalari anonimoak	943 331103

☎ FARMAZIAK

▶Egunez:	Correa
	Antziola 44
	☎ 943 551933
▶Gaez:	Elizondo
	Andoain. Zumea 30
	☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Portu auzoko Shangai taberna saldu edo alokatuko nuke. Interesatuak deitu: **600 850 400** (Marian).

Etxea daukat salgai Latsunbe Berrin. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea, jardina eta terraza. Prezioa negoziatzeko. **943 550581 - 943 555629**

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

MERKEALDIETAN GAUDE

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

IGANDE honetan AKELARRE taldearekin.

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Matrikula zabalik etapa guztietan (2 urtetik -16ra)
Otsailaren 18tik martxoaren 1era Laubidietan

Orduetgia:

⇒ 9:00 - 13:00
⇒ 14:30 - 17:30

Ikastetxeak bisitatzeko aukera eskaintzen da.

Laubidieta z/g.- 20120 Hernani ☎ 943 555 423 - Faxe 943 331 936
Informazio gehiago gure Web gunean: www.langile.com



IRUBIDE JATETXEA

Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702



Elizatxo 12 - Florida 28



Gipuzkoako Ikastolen Gurasoen Federazioa

☞ Matrikula: Otsailaren 18tik martxoaren 1a bitartean.

☞ Non: Elizatxo 12 (HH-LH) - Florida 28 (BHI)

☞ Orduetgia: 9:00etatik-12:30etara / 14:30etatik-16:30etara

☞ Telefonoak: HH-LH: 943 55 72 24 - BHI: 943 55 26 33

Ikastetxea ikusteko aukera: Otsailaren 21 eta 28an arratsaldeko 17:00etan.